

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO UDALAREN 2010-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bilboko Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onartu dute Osokoaren kideek, nahiz horietako batek boto partikular konkurrentea egin duen.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak -Udala, bere toki erakunde autonomoak, enpresa-erakunde publikoa eta udalak gehiengoarekin partaidetutako sozietate publikoak barne hartzen dituenak- legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta diru-laguntzaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. Gainera, lanaren zabalak Alhóndiga Bilbo aisialdi eta kultura gunearen 2010eko abenduaren 31n guztizko kostuaren analisia barne hartu du eta horrekin loturik, obrak, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzean ezargarria den arautegia bete izanaren azterketa; baita, Bilbao Arte Fundazioaren fiskalizazioa ere, Kontu Orokorraren atal ez dena.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta bere ekonomia-finantzazko jarduera arautzen duen araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak zenbaitetan urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: Zerbitzu kontratu batean aldizkari ofizialetan lehiaketaren informazio osagabea argitaratu da; telekomunikabideen zerbitzua 2 milioi euroren zenbatekoan exekutatu da aldeztetik esleitu gabe; zerbitzu kontratu batean 3 milioi euroren aldaketa izapidetu da eta horrek hasierako kontratuaren bolumen ekonomikoa desitxuratu du; eta obren hainbat kontraturen xedea zatikatu da bidegabe, erregulazio harmonizatuari meneratutako kontratatutaz hartzea bereizten duten mugak urratuz.

Diru-laguntzen atalean azpimarratzekoa da Campos Antzokia hornitzeko eta eranskinetan zaharberritze lanetarako 4,2 milioi euroren ordainketa; inbertsio hori,

baina, zuzenean esleitu du onuradunak arrazoi tekniko, estrategiko eta ekonomikoak aitzakia hartuta; horiek, ordea, ez dira behar bezala egiaztatu.

Udalaren Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia eman du horren aurkezpen eta edukiari dagokionez; nolana den ere, azpimarratu du batetik ez duela gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ezta egoeraren balantzean islatutako aktiboek 2010eko abenduaren 31n haien egiazko egoera islatzen dutela ezagutzeko euskarri egokirik ere; eta bestetik, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz akatsa azaleratu du, Udalaren Diruzaintza Geldikina 826 mila euroan gehitu dutenak.

Erakunde autonomo, enpresa-erakunde publiko, sozietate publiko eta fundazioari dagokienez, HKEEk legea betetzeari eta Urteko Kontuei buruz eman duen iritzia aldekoa da, nahiz txostenean bertan hainbat ez-betetze eta salbuespen jaso diren.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu eta kontabilitatearen likidazio, artekaritza kontrol, sarrera, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen ataletan.

BilbaoAlhóndiga aisialdi eta kultura guneari dagokionez, 2010eko abenduaren 31n guztira 100 milioi euroren kostua eragin duena, proiektuaren aurrekariak, inbertsioen xehapena eta Bilbao Ría 2000, SAr egindako mandatua jaso, kontratuei ezarritako legezko prozedurak aztertu eta azkenik, hainbat ondorio eman dira.

Amaitzeko, Udalaren finantza egoera dela eta, 2008-2010 aldian sarrera eta gastuen zifra nagusien eboluzioak aurrezki garbiak bilakaera negatiboa izatea ekarri du, batik bat, itunpeko zergen diru-bilketak behera egin duelako eta honenbestez, ez da behar hainbatekoa izan kapital-eragiketen emaitza finantzatzeko; horregatik, 2010ean egindako inbertsioak aurrezki garbiarekin finantzatu ezin izan diren zatian kapital-gastuetarako diru-laguntza bidez eta diruzaintza geldikin bidez finantzatu behar izan dira.